



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko azaroaren 19a

113. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzekoa, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari dagokionez. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nekazaritza Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legea aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (5. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Jabeldura, bidean dauden transferentzien gainean legegintzaldi honetan sustatu eta garatu beharreko politika orokorrari buruzkoa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egingina (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da udal montepio orokorraren finantziarako behin betiko arau berria onesten ez den bitartean, montepio horren defizitak Nafarroako aurrekontu orokorren kargura finantza daitezela. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Pikillo Piperra” eta “Nafarroako Zainzuria” jatorrizko deiturekin lotutako sektoreak sustatu, bultzatu eta lehengoratzeko programa bat aurkez dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du NUPekin batera batzorde bat era dezan Tuterako Campuserako titulazio berriak aztertu eta diseinatzeko. Unión del Pueblo Navarro, Nafarroa Bai eta Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeek eta Convergencia de Demócratas de Navarra eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteek aurkeztu dute (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaur egun dauden korrante historiografikoen arteko topaketa bat susta dezan eta alderdi akademiko eta zientifikoei lehentasuna eman diezaien Nafarroaren konkistaren bosgarren mendeurrenaren oroitzapen-ekitaldietan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere buruari planteatutako diezaion biriketako gaitasun bat izateko arriskua duen biztanleriari buruzko azterlan bat egiteko aukera. Mozioa erretiratzea (11. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

—Galdera, jakiteko nola baloratzen duen Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kultur Ondararako akordioaren garapena eta asmorik ote duen PSN-PSOeri plan horren luzapena proposatzeko, Román Felones Morrás jaunak egin (12. or.).

—Galdera, Artaxoako “Electra” Bazkalekuen Elkarteari emandako dirulaguntzari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (13. or.).

—Galdera, organo kolegiatuen inbentario orokorra egiteari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egin (13. or.).

—Galdera, Hondakinen Plan Integralaren eztabaidari eta onespeneri buruzkoa. Galdera erretiratzea (14. or.).

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Deialdia, txanda irekian eta oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari lanpostu bat betetzeko. Epaimahai kalifikatzailea (15. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzekoa, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari dagokionez.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari dagokionez Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

**ERABAKIA:**

**1.** Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari dagokionez Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2010eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzekoa, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari dagokionez**

**ZIOEN AZALPENA**

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 167.etik 171.era bitarte-

ko artikuluetan Instalazio, Eraikuntza eta Obren gaineko Zerga arautzen da udal-tributuen artean. Tributu hori udalaren diru-sarrera gisa sortu zuen Toki Ogasunei buruzko abenduaren 28ko 39/1988 Legeak, eta 2/1995 Foru Legearen bitartez sartu zen Nafarroan, abenduaren 26ko 28/1990 Legearen bidez onetsitako Hitzarmen Ekonomikoko xedapenen ondorioz.

Tributu horren bilketak doktrina- eta jurisprudentzia-eztabaida luzea ekarri du, zerga-oinarriaren definizioari dagokionez. Estatuko legediak halakotzat hartu ohi du "eraikuntza, instalazio edo obraren egiazko kostua, egiazko kostutzat hartuta haren exekuzio materialaren kostua," baina zehaztuta "ondokoak ez direla zerga-oinarriaren zati izanen: Balio Erantsiaren gaineko Zerga; araubide berezietako gainontzeko gisa bereko zergak; eta eraikuntzarekin, instalazioarekin edo obrarekin lotutako toki izaera publikoko gainontzeko ondare-prestazioak, prezio publikoak eta tasak; profesionalen ordainsariak; kontratistaren enpresa-irabaziak, edo exekuzio materialaren kostua hertsiki osatzen duen beste edozein kontzeptu," martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsitako Toki Ogasunei buruzko Legearen Testu Bategineko 100. artikulua xedatuaren arabera. Foru araubidea, ezer gehiago zehaztu gabe, "zerga-oinarria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren kostu erreal eta benetakoak osatzen dutela" ezartzera mugatu da.

Ebazpen judizial kontrajarri ugari eman ohi dira zenbait obra eta instalazioaren kasuan exekuzio materialaren kostu horri buruz, batez ere energia-aren produkzioarekin zerikusia dutenetan (linea elektrikoak, parke eolikoak, eguzki-parkeak, panel fotovoltaikoen instalazioa, eta abar); izan ere, batzuetan adierazten da obra zibilaren kostua baino ez dela aintzat hartu behar, eta beste batzuetan, aldiz, lizentziari zentzua ematen diona dela hain zuzen ere multzo funtzional bakarra osatzen duten osagai horiek egotea, eta, hortaz, obraren

edo instalazioaren kostu gisa hartu behar direla. Horrek ziurgabetasun etengabea eragin du araua behar bezala aplikatzeari dagokionez, bereziki zerga likidatu behar duten udaletan. Auzitegi Goreneko 2. Sekzioko Administrazioarekiko Auzien Salak orain dela gutxi aztertu du auzia, eta 2010eko maiatzaren 14ko epaian, legearen interesean emandakoan, legezko doktrina gisa ezarri du parke eolikoaren instalazioen kasuan Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergako zerga-oinarriaren zati dela energia jasotzeko beharrezkoak diren osagai guztien kostua –obra lizentzia zer proiektutarako eskatzen den, hartantxe ageri direnak eta egindako eraikuntzarekiko berezitasunik edo identitate berekirik ez dutenak–.

Halere, legezko xedapenak behar bezala argitze eta bateratze aldera eta zenbait operadore juridikoren artean sortzen ari diren gatazkak ekidite aldera, komeni da Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren zerga-oinarriaren definizioa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legean jasotakoa, osatzea eta hobetzea.

#### **Artikulu bakarra.**

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 10. artikulua honela idatzita geldituko da:

“1. Zerga-oinarria eraikuntza, instalazio edo obraren kostu erreal eta benetakoak osatzen dute. Udal-lizentzia zer proiektutarako eskatu den, hartan ageri diren osagai guztien kostua da zerga-oinarriaren zati, baita beste nonbait fabrikatu badira ere, baldin eta egitura funtzional bakarra osatzen badute eta egindako eraikuntzarekiko berezitasunik edo identitate berekirik ez badute.

Ondokoak ez dira zerga-oinarriaren zati izan: Balio Erantsiaren gaineko Zerga; araubide berezietako gainontzeko gisa bereko zergak; eta eraikuntzarekin, instalazioarekin edo obrarekin lotutako toki izaera publikoko gainontzeko ondare-prestazioak, prezio publikoak eta tasak; profesionalen ordainsariak; kontratistaren enpresa-irabaziak, edo eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren exekuzio materialaren kostua hertsiki osatzen duen beste edozein kontzeptu.”

#### **Xedapen indargabetzailea.**

Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

#### **Azken xedapena**

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

## Foru Lege proposamena, Nekazaritza Azpiegituri buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legea aldatzekoa.

### ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2010eko azaroaren 11n egindako Osoko Bilkuran, Nekazaritza Azpiegituri buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2010eko urriaren 1eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

#### ERABAKIA:

1. Nekazaritza Azpiegituri buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege pro-

posamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Landa Garapenerako eta Ingurumene-ko Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2010eko abenduaren 17ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2010eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Jabeldura, bidean dauden transferentzien gainean legegintzaldi honetan sustatu eta garatu beharreko politika orokorrari buruzkoa.**

*PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkezturiko jabeldura, bidean dauden transferentzien gainean legegintzaldi honetan sustatu eta garatu beharreko politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**JABELDURAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamen-

duaren 181. artikulua eta hurrengo babesean, honako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuak lehendakariorde eta Lehendakari, Justizia eta Barneko kontseilari Caballero jaunari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin.

Nafarroak ere ekin behar die beste autonomia erkidego batzuetan, zehazki Euskal Autonomia Erkidegoan, ematen ari diren transferentzia-prozesuei, eta badira, orobat, une honetan gaurkotasun handia hartzen ari diren zenbait transferentzia-erreibindikazio; esate baterako, espetxe-arlokoak. Transferentzia Batzordea berehala biltzeko eskaria egin dugu, baina ez da hura biltzeko deialdirik egin.

Hortaz, parlamentari honek jabeldura hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan transferentzien arloan sustatu eta garatu beharreko politika orokorrari buruz.

Iruñean, 2010eko azaroaren 8an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da udal monte- pio orokorraren finantziatorako behin betiko arau berria onesten ez den bitartean, monte- pio horren defizitak Nafarroako aurrekontu oro- korren kargura finantza daitezzen.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita udal monte-  
pio orokorraren finantziatorako behin betiko arau berria onesten ez den bitartean, monte-  
pio horren defizitak Nafarroako aurrekontu orokorren kargura finantza daitezzen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Udal Funtzionarioen Eskubide Pasiboen Erregelamendua Foru Kontseilu Administratiboaren 1947ko maiatzaren 31ko erabaki bidez onetsi zen. Erabaki hartako 16. artikulua ondokoa ezartzen du hitzez hitz: "Montepioaren diru-sarreraren eta gastuen arteko defizita berdintze aldera, banaketa pasibo bat eginen da Nafarroako udalen artean, ondoko arauari jarraikiz:

a) Idazkariei eta fakultatiboek (sendagileak, praktikanteak, albaitariak eta farmazialariak) dagokien defizita kalkulatzeko, defizit hori igortzen den urteko otsailaren 1ean ofizialki deklaraturiko biztanleria datuak hartuko dira aintzat, erroldako datuak berrikusita.

b) Udal gordailuzainei, nomina eta plantillako emaginei eta gainontzeko administrazio funtziona-

rioiei eta menpekoei dagokien defizita udalei igorriko zaie, duten langile kopuruaren arabera.

Arau horren edukia ikusita, ondoko gogoetak egin beharra dago:

Lehena.- Nafarroako Osasun Eskualdeei buruzko 1985eko maiatzaren 13ko Legea onestean, Nafarroako Gobernuak aukera eman zien osasun arloko funtzionario guztiei bere plantillako organigraman sartzeko edo erretiro aurreratua hartzeko, eta hartara, logikoki, horiek guztiek igaro behar zuten Nafarroako Gobernuko funtzionarioen monte-  
pioan kotizatzea.

Bigarrena.- Nafarroako Gobernuko funtzionarioei –1992ko urtarrilaren 1etik aitzina– eta Nafarroako toki entitateetan sartutako funtzionarioei –1994ko urtarriletik aitzina– ez zaie uzten monte-  
pioei atxikitzen, eta denak daude Gizarte Segurantzaren Araubideari atxikirik.

Hirugarrena.- Nafarroako Gobernuak berak eskatuta Comptos Ganberak 2001ean eginiko txostenean jasota ageri den bezala, hala Nafarroako Gobernuaren Monte-  
pioaren nola Udal Monte-  
pio Orokorraren finantzaketa-eredua datza jarduneko funtzionarioek ordaindu beharreko kuotetan eta Nafarroako aurrekontu orokorretako ekarpenetan. Kolektibo itxia denez (1994tik aitzina ez zaio udal funtzionarioari atxiki Monte-  
pioari), enplegatuen kuotak beheranzkoak izanen dira ezinbestez; horrek berekin ekarriko du haiek finantzatzeko baliabide publiko gehiago behar izatea.

Laugarrena.- Nafarroako Gobernuak Udal Monte-  
pio Orokorraren defiziterako onetsi ohi dituen banaketak bete-betean kontrajartzen zaizkie arestian aipatutako xedapenei, zeren sendagile, albaitari, osasun-laguntzaile tekniko eta farmazialari kontzeptua jasotzen dute oraindik ere, eta langile horiek ez dira toki entitateetakoak, eta ez dute kontuan hartzen Comptos Ganberak egiaztatutako ondoko hau ere: talde itxia denez, enplegatuen kuotak beheranzkoak izanen dira ezinbestez, eta horrek berekin ekarriko du haiek finantzatzeko baliabide publiko gehiago behar izatea.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du, Udal Montepio Orokorraren finantzi-aziorako behin betiko arau berria onesten ez den bitartean, montepio horren defizitak Nafarroako aurrekontu orokorren kargura finantza daitezzen.

Iruñean, 2010eko azaroaren 8an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da “Pikillo Piperra” eta “Nafarroako Zainzuria” jatorrizko deiturekin lotutako sektoreak sustatu, bultzatu eta lehengoratzeko programa bat aurkez dezan.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen baita “Pikillo Piperra” eta “Nafarroako Zainzuria” jatorrizko deiturekin lotutako sektoreak sustatu, bultzatu eta lehengoratzeko programa bat aurkez dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

“Pikillo Piperra” eta “Nafarroako Zainzuria” jatorrizko deiturak beti egon dira kalitatezko produktuei lotuta, eta gure erkidegoari entzutea eta ospea eman diote.

Orain dela zenbait urte, berriz, protagonismoa, merkatua, produkzioa eta etorkizunerako aukerak galtzen hasi ziren.

Hainbat arrazoi egon dira horren atzean, baina Nafarroako Gobernuak sektore horrekiko konpromisorik, estrategiarik eta planik ez izateak ere eragina izan du bi jatorrizko deitura horien egoerak okerrera egin izanean.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du lau hilabeteko epean programa bat aurkez dezan Legebiltzarrean, zeinetan berarizko neurriak jasoko baitira, “Nafarroako Zainzuria” eta “Pikillo Piperra” jatorrizko deiturei lotutako sektoreak bizi duen egoeraren azterketatik abiatuta, gure erkidegoarentzat hain garrantzitsuak diren sektore horiek sustatu, bultzatu eta lehengoratzeko.

Iruñean, 2010eko azaroaren 11n

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro



## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du NUPekin batera batzorde bat era dezan Tuterako Campusarako titulazio berriak aztertu eta diseinatzeko.**

*UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO, NAFARROA BAI ETA SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEEK ETA CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA ETA IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro, Nafarroa Bai eta Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeen eta Convergencia de Demócratas de Navarra eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen baitu NUPekin batera batzorde bat era dezan Tuterako Campusarako titulazio berriak aztertu eta diseinatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean agitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien elkarteek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Tuterako campusa leku pribilegiatu batean dago. Haren kokalekuak bide ematen du ikasle asko— erkidegoaren mugatik harantzagoak eta Ebro ibar erdi-koak— hartan sar dadin.

Horri gehitu behar zaio azpiegituren sarea ona dela, abian direla asmo handiko planak etorkizunari begira —esate baterako, Madrileko autobia eta Nafarroako Abiadura Handiko korridorea— eta, hemendik gutxira, Erriberak berehala balioan jarriko den industria-lurzoru trinkoa izanen duela: Tuterako industriagune berria.

Nekazaritza-elikagaien Hiria aitzindaria da energia berriztagarrien erabileran, eta nekazaritza-elikagaien sektorean balio erantsi handia duten enpresak erakarri nahi ditu (berrikuntzako osagaiak, garapen teknologikoa eta laneskua), Erriberan jadanik finkatutako eta elikagai prozesatuen garapenean zentratutako nekazaritza-elikagaien klusterretako lehiakortasun handiarekin.

Berrikuntza-gaitasun handiko kluster nabarmen bat ere garatu beharra dago energia berriztagarrien arloan. Energia berriztagarrien arloan horretan aurreikusitako hazkundea aprobetxatu beharra dago, arlo horrek Nafarroan duen garrantzirik eta eskualdeko erakunde publiko nahiz pribatuek sustatutako Erriberako Ereku Logistikoaren proiektuaren babesetik abiatuta.

Horrek guztiak Nafarroako Gobernua behar-tzen du ardatz ekonomiko dinamikoetako bat bultzatzera NUPen campusarekiko babesaren bitartez: Ebro ibarra.

Kontuan hartu behar da abian jarritako ekimenak finkatuko badira beharrezkoa dela jakintzen transferentzia ematea Unibertsitatearen, zentro teknologikoen eta enpresen artean, lankidetzako proiektuak eta patenteak garatuz. Beharrezkoa da NUPek bere prestakuntza-eskaintza egokitzea goraka ari diren sektore horiek izanen dituzten beharrezanetara, hau da, titulazio espezializatuak eta prestakuntza-programak sustatzea, langileen trebeziak eta behar diren ezagutza teknikoak hobetzeko eta garatzeko.

Horrenbestez, Erriberaren eta, beraz, Nafarroa osoaren garapen sozioekonomikoaren izenean, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak garapen horri dagokionez izan behar duen lidergoaren karietara, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, kontuan hartuta Tuterako campusak duen kokaleku pribilegiatua, ikasleak erakartzeko aukera eta nekazaritza-elikagaien, energiaren, logistikaren eta abarren arloko industriekin lotuta goraka ari diren sektoreen bultzada ekonomikoa, NUPi babesa eman diezaion titulazio

berriak aztertu, prestatu eta aurkeztean, azpimarra berezia jarrita nekazaritza-elikagaien sektorearekin lotutako ikasketetan.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Erriberako enpresa-sektoreari lankidetzan aritzeko eska diezaion, titulazio berriak zehazteko eta taxutzeko lanak egite aldera.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du taxutze-lan horren abiapuntu izan dadin “Bikaintasun Campus” baten sorrera, zeina nazioan nahiz nazioartean erreferentziakoa izanen baita enpresa-lankidetzarengatik, ikerkun-

tza eta garapen programengatik eta ele bitako –gaztelaniazko eta ingelesezko– titulazioen aldeko apustu irmoa egiteagatik.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du NUPekin batera era dezan titulazio berrien azterlanaz eta taxueraz arduratuko den batzordea.

Iruñean, 2010eko azaroaren 11n

Foru parlamentariak: Carlos García Adanero, Maiorga Ramírez Erro, Samuel Caro Sádaba, Juan Cruz Alli Aranguren eta Ana Figueras Castellano

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaur egun dauden korrante historiografikoen arteko topaketa bat susta dezan eta alderdi akademiko eta zientifikoei lehentasuna eman diezaien Nafarroaren konkistaren bosgarren mendeurrenaren oroitzapen-ekitaldietan.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gaur egun dauden korrante historiografikoen arteko topaketa bat susta dezan eta alderdi akademiko eta zientifikoei lehentasuna eman diezaien Nafarroaren konkistaren bosgarren mendeurrenaren oroitzapen-ekitaldietan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta

onesteko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alderdi akademiko eta zientifikoei lehentasuna eman diezaien Nafarroaren konkistaren bosgarren mendeurrenaren oroitzapen-ekitaldietan.

Nafarroak bere historiako bi gertakari garrantzitsuren oroitzapen-ekitaldiak eginen ditu 2012an: Navas de Tolosako batailaren zortzigarren mendeurrena eta Gaztelako koroak Nafarroa konkistatu zueneko eta Espainiako monarkiara arian-arian sartu zeneko bosgarren mendeurrena.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak, zuzenean edo zeharka, hainbat ekitaldi programatu edo lagundu ditu. Hona horietako batzuk: orain dela gutxi egin den “Nafarroaren Historia” izeneko kongresuko mahai-ingurua, berariazko kongresu bat, 2011ko udaberrian, eta Lizarrako Erdi Aroko Ikerketen Astea, heldu den urteko uztailean eginen baita.

Nafarroako Parlamentuak, bestalde, XVI. mendearen lehen hereneko prozesu historiko konplexuari buruzko interpretazio ezberdinak egiten direla jakitun, 2009an Nafarroako Gobernua premiatu zuen batzorde zientifiko plural bat era zezan, zeinetan tokia izanen baitzuten dauden eskola historiografikoak.

Jarraibide horiek gorabehera, orain arteko bileren zientifikoetan ez da eskatu gaian aditutakoak eta zorrotasun akademiko egiaztatutakoak diren

historiagile guztiek parte har dezaten, eta horrek eragozten du gertakari haien –eta, orobat, XV. mendearen amaieran eta XVI. mendearen hasieran Erresuman bizitako prozesu konplexuaren– interpretazio zuzenean aurrera egitea eta gertakari haien alderdirik eztabaidagarrienen sintesi argigarriak egitea.

Helburu hori erdietsi aldera, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondo erabaki-proposamena aurkeztu du, eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gaur egun dauden korrante historiografikoen arteko topaketa bat susta dezan eta

alderdi akademiko eta zientifikoei lehentasuna eman diezaien Nafarroaren konkistaren bosgarren mendeurrenaren oroitzapen-ekitaldietan.

2. Nafarroako Parlamentuak, gertakari haiek erkidegoaren bilakaera historikoan duten garrantziaren jakitun, Nafarroako Gobernua premiatzen du Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen eta irakasleen esku jar ditzan eskola-materialak, batzuei eta besteei gertakari haiek hobeki ezagutzen laguntzeko eta bizitako errealitate historikoari ahal den guztian doitutako interpretazio bat egiten laguntzeko.

Iruñean, 2010eko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere buruari planteia diezaion biriketako gaixotasun bat izateko arriskua duen biztanleriari buruzko azterlan bat egiteko aukera.**

### *MOZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jakinaren gainean dagoela adieraztea, Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da bere buruari planteia diezaion biriketako gaixotasun bat izateko

arriskua duen biztanleriari buruzko azterlan bat egiteko aukera. Mozio hori 2010eko azaroaren 8ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2010eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, jakiteko nola baloratzen duen Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kultur Ondarerako akordioaren garapena eta asmorik ote duen PSN-PSOERI plan horren luzapena proposatzeko.***ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko nola baloratzen duen Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kultur Ondarerako akordioaren garapena eta asmorik ote duen PSN-PSOERI plan horren luzapena proposatzeko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Román Felones Morrás foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 191. artikuluan xedatuaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Kultur Ondarerako akordioaren garapenari buruzkoa, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dadin.

2009ko urtarrilaren 27an, zenbait hilabete iraun zuen prozesu zail baten ondorioz, Nafarroako Gobernuak eta PSN-PSOEk "Nafarroako Kultur Ondarerako Akordioa" sinatu zuten PSN-PSOERen ekimenez. Akordioa, PSN-PSOERen ustez, jarduketa-tresna berritzaile bat da, legegintzaldi osoan ondarearen arloan egin den proposamenik interesgarriena.

Akordio horretan zehaztu ziren jarduketa-esparrua, esku-hartzeari buruzko lehentasunezko irizpideak, lan egiteko eredu arrunta, oinarrizko jarduketa-printzipioak, proiektuen taxuera eta egikera, zabalkundea eta bisiten programa, jarraipen-batzordea, aurrekontu-esleipena, akordioaren indarraldia eta ondoko esparruetan aurreikusitako jarduketak: monumentuak, multzo historikoak, industria-arkitekturako multzoak, leku historikoak, esparru arkeologikoak, kultur paisaiak, lorategi historikoak, ondasun higigarriak, katalogoak eta inbentarioak.

Bestalde, akordioa 2010eko abenduaren 31ra bitartekoa baldin bada ere, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektuak hainbat lerro jasotzen ditu kulturaren eta turismoaren arloetan, "Nafarroako Kultur Ondarearen Hirurteko Plana" aipatzen dutenak, plan hori indarrean egonen balitz bezala.

Aurrekoa ikusirik, hauxe jakin nahi dut:

- ¿Nola baloratzen du Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kultur Ondarerako Akordioaren garapena? 2011rako aurrekontuen proiektutik ondoriozta daiteke Nafarroako Gobernuak plan hori luzatzeko asmoa duela. ¿Hala al da?

Iruñean, 2010eko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

## **Galdera, Artaxoako “Electra” Bazkalekuen Elkarteari emandako dirulaguntzari buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Artaxoako “Electra” Bazkalekuen Elkarteari emandako dirulaguntzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko

Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Nafarroako Gobernuak 360.339 euroko dirulaguntza eman zion Artaxoako “Electra” Bazkalekuen Elkarteari 2009an herri-lurretan obrak egiteagatik. Nola da posible entitate pribatu batek diru hori kobratzea? Laguntza horri buruzko espediente osoaren kopia jaso nahi dugu.

2. Zeintzuk dira Artaxoako “Electra” Bazkalekuen Elkartearen estatutuak? Haren kopia eskuratu nahi dugu.

3. Herri-lurrak titulartasun publikokoak direla kontuan hartuta, Artaxoako Udalak zergatik ez du jasotzen 360.339 euroko dirulaguntza?

Iruñean, 2010eko azaroaren 8an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, organo kolegiatuen inbentario orokorra egiteari buruzkoa.**

*ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, organo kolegiatuen inbentario orokorra egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko laugarren xedapen gehigarriak ondokoa ezartzen du: “Foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak kide anitzeko organoen inbentario orokorra egingen du.”

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen irailaren 3ko 116/2007 Foru Dekretuko 19. artikulua ondoko eginkizuna esleitzen dio, besteak beste, Legegintza eta Koordinazio Zerbitzuari: "Prozedura administratiboen inbentarioa eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako organo kolegiatuen inbentarioaren jarraipena eta koordinazioa."

15/2004 Foru Legea onetsi zenetik igaro den denbora gorabehera, ez da argitara eman organo kolegiatuen inbentario hori onesteko inolako egin-

tzarik, eta inbentarioa ez da inon ageri argitaratuta.

Hori dela-eta, Gobernuak ondoko galderari erantzutea nahi dugu:

Nafarroako Gobernuak egin al du organo kolegiatuen inbentario orokorra? Egin ez baldin badu, zer asmo du inbentarioa egiteari dagokionez, eta zer egin du inbentarioa taxutze aldera?

Iruñean, 2010eko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

---

## **Galdera, Hondakinen Plan Integralaren eztabaidari eta onespeneri buruzkoa.**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkezturiko Hondakinen Plan Integralaren eztabaidari eta onespeneri buruzko galdera erretiratu izanari dagokionez.

Galdera hori 2010eko urriaren 29ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2010eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Deialdia, txanda irekian eta oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parla-  
mentuaren zerbitzuko legelari lanpostu bat betetzekoa.**

**Epaimahai kalifikatzailea**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 15ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordearen komunikazioa, legelari lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiko epaimahai kalifikatzailean bere ordezkariak izendatzeari buruzkoa, ondokoa ERABAKI DA:

**1.** Jakinaren gainean dagoela adieraztea, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiko epaimahai kalifikatzailean Langileen Batzordearen ordezkariak izendatzeari dagokionez. Hona ordezkariak:

– Epaimahaiko kidea: Cristina Zoco Zabala andrea, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zuzenbide Konstituzionaleko irakaslea.

– Ordezkoa: Miren Sarasibar Iriarte andrea, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Administrazio Zuzenbideko irakaslea.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, bai eta iragarki oholean eta webgunean ere: [www.parlamento-navarra.es](http://www.parlamento-navarra.es).

Iruñean, 2010eko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

